



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 147. INFORMAZIO BULETINA

> 2019ko iraila



Fondo Europeo de  
Desarrollo Regional (FEDER)  
*"Una manera de hacer Europa"*

Europar Batasuna  
Unión Europea

Eskualde Garapenerako  
Europar Funtza (EGEF)  
*"Europa egiteko modu bat"*

GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > Donostiak 2019ko Europaren Saria jaso du

Irailaren 20an, Donostiako alkateak, Eneko Goiak, hirientzako Europa Saria jaso du Udalbatza aretoan, sariaren arduradun den azpibatzordearen lehendakariordearen eskutik, Kestutis Masiulis jaunarengandik; baita Joseph O'Reilly-rengandik, Europako Kontseiluaren Batzarraren lehendakariordea dena, hala nola azpibatzordearen kidea. Ordezkaritza hau danborraden artean izan du ongi etorria Donostiako martxa eta Europako ereserkiarekin batera.

Alkateak azpimarratu du sariak hiriaren europar joera eta grina areagotuko duela, hala nola Donostiak eta Europak partekatzen dituzten balioak, sariaren emaleek goraiapatutakok: aniztasuna, demokrazia eta, guztiaren gainetik, giza eskubideak. Gogoratu du Donostiaren Europako Kultur Hiriburutzak, 2016an, "Bizikidetzarako Kultura" leloa izan zuela.

*(informazio +)*



### > **Chillida Leku Pirinioetako Burdinaren Bidea Elkartearen, eta beraz Europar ibilbide kulturalaren kide berria izango da**

Irailaren 6an, Pirinioetako Burdinaren Bidea Elkartearen urteko batzar orokorra egin da, elkartearen jardueren jarraipena egiteko eta 2020ko programa aztertzeko. Bazkide berrien onarpena ere aztergai izan da, hala nola Chillida Leku Museoarena. Batzar Orokorraren aurretik, Elkartearen Zuzendaritza Batzordea bildu da. Sareak bultzatutako lehen jardueraren xedea izan da leku horietako bakoitzeko azpiegiturak hobetzea, kalitatezko zerbitzuak dituen Bide bat sortzeko. «Une honetan aukera dago bide osoa egiteko eta industriarekin lotutako kultur ondare handia ezagutzeko, besteak beste, meategiak, burdinolak, langileen habitata eta abar ezagutzeko, baita jardueretan parte hartzeko eta aurrez aurreko erakustaldiak ikusteko ere», adierazi du Itxasok.

Sarearen helburu orokorrak honako hauek dira: Pirinioetako burdinari eta bere erabilerari buruzko ikerketak egitea, mugaz gaindiko lankidetzak sustatzea, kultur turismoko produktuak sortzea, eta garapen ekonomikoko eta sozialeko produktuak sortzea. Itxasoren iritziz, «Burdinaren Bideak balioan jartzen du Gipuzkoako ondare historiko handi bat eta Europako kultur ibilbide gisa aitortzen du». Elkartearen zeregina da burdinaren kulturari eta tradizioari buruzko ikerketa, kontserbazio eta zabalkunde lana egitea bi helbururekin, batetik, balioan jartzeko burdinarekin eta siderurgia jarduerarekin, meategiekin, burdinolekin, artxiboekin eta arkitekturekin lotutako ondarea eta kultura, eta, bestetik, ahalik eta baliabide kopuru handiena kokatzeko Europako ibilbide baten barruan.

Gipuzkoan burdinarekin lotutako kultur ondare handia dago. Baliabide horietako asko Elkartearen ordezkariak daude: Agorregiko burdinola eta Arditurriko meatze-barrutia (Gipuzkoako Foru Aldundia), Mirandaolako burdinola eta Euskal Burdinaren Museoa (Lenbur Fundazioa), Igartza gunea (Beasaingo Udala), Zeraingo Kultur Parkea (Zeraingo Udala), Ormaiztegiko zubia (Ormaiztegiko Udala), Mutiloako meatze gunea (Mutiloako Udala), Elgoibarko Makina Erremintaren Museoa (Makina Erremintaren Museoaren Fundazioa), Eibarko Armagintza Museoa (Eibarko Udala). Duela gutxi bazkide berriak sartu dira elkartearen: Errenteriako Udala (Fanderia), Bidasoa Bizirik (Irugurutzetako labeak) eta Azpeitiko Burdinbidearen Euskal Museoa (Eusko Jaurlaritza).

*(informazio +)*



### > **Kulturako Foru Sailak Europako Ondarearen Jardunaldien 4. aldia antolatu du, Europako Kontseiluak asmatutako eta Batzordeak sustatutako ideia-aren harira.**

62 jarduera aurkeztu dira, Gipuzkoa osoko 32 udalerrietan egingo direnak, eragile publiko nahiz pribatu askoren bitartez, hartara jendeak, egun batzuetan zehar, aukera izan dezan ondarearekin zerikusia duten baliabide ugartara iritsi eta ezagutzeko, ohikoa ez den modu batean, gainera.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak, laugarren urtez jarraian, Ondarearen Europako Jardunaldiak antolatzen ditu. Europako Kontseiluaren ekimen honen xedea da ondarearen garrantzia balioetsi eta herritarrei gerturatzea. Edizio honen ardatza izango da Ondarea plazara! Aurten, publikoari eskatuko zaio esploratu ditzala aisialdiak ondarearekin zerikusian dituen osagai ukigarriak eta ukiezinak.

Gai zabala denez, edizio honetako programaren barruan aisialdi ekintza ugari dago. Jendeak gozatu ahal izango du hainbat ekintzarekin: ikuskizunak, bisita eta ibilbide gidatuak edo antzeztuak, jardunaldi edo lantegi gastro-kulturalak, erakusketa fisikoak eta birtualak eta abar. Gainera, jolas tradizionalak egin ahal izango dira, hala nola bola txapelketak, gymkhanak edo treska estropadak. Ekitaldi gehienak urrian zehar egingo diren arren, irailean eta azaroan ere zenbait ekintza programatu dira.

*(informazio +)*



## KOHESIO POLITIKA

### > **Tecnalia-k eta Gestamp-ek Europako sari nagusia lortu dute energia efizientzia eta Big Data bidezko industria adimena arloan, Hazitek programa eta EGEF funtsaren laguntzarekin**

Tecnalia, Euskadiko teknologia eta ikerketa korporazioa dena, eta euskal zein nazioartekoa den Gestamp enpresa, DatSci Award sariaren irabazle izan dira. Akronimoak "datuen zientziarentzako saria" adierazten du. Big Data Value Europa mailako enpresaritzat erakundeak eskaintzen du, Europako Batzordeak bultzatu eta koordinatutakoa. Honen izenak kopuru handiko datu multzoen kudeaketa adierazten du.

Saria irailan esleitzen ohi da eta berrikuntzaren saila edo arlo ezberdinak goraiatzeko, hala nola azken urtean zehar aurkeztutako proposamenak; saritu hauen kasuan, NAIA I4.0 izeneko sistema, adimen artifizialezkoa, energia efizientzia neurtzen eta hobetzen duena ekoizpen prozesuetan. Euskal erakunde hauek ospe handiko beste batzuk gainditu dituzte beren atal edo sailean, Accenture eta Telekom batik bat.

NAIA I4.0ren esanahia da "Neurtu eta Aditu 4.0 Industrian Aurreratzeko". Sistema adimentsuak efizientzia gabeziak aurkitzen ditu industria guneetan eta Gestamp dauzkanetan saiatu da 2018an zehar. Digitalizazioa bateratzen du "machine learning", makinaren ikaskuntzarekin alegia, eta datu analitikarekin (adibidez, elektrizitate kontsumoaren datu sorta historikoak, edota gasa edo aire konprimatuarenak). Makinek iraganeko datuengandik ikasten dute kontsumoaren mailen zergatiak automatikoki ulertzeko eta bertatik ondorioak ateratzeko.

*(informazio +)*





> **Igartubeiti baserri museoak Nathalia Heim-en Lurraldeak [Territorias] erakusketa, Patrim+ egonaldi artistikoaren emaitza aurkeztu du, Espainia-Frantzia-Andorra Interreg POCTEFA 2014-2020 programaren barne.**

Erakusketa hau 2019ko uztailean hasitako prozesu baten emaitza da, Ezkioko Igartubeiti Baserri Museoak antolatutako Patrim+ mugaz gaindiko egonaldi artistikoaren testuinguruan.

Uda honetan Ezkioko Igartubeiti baserri museoak, Chateau de Seix (Couserans) eta Espacio Pirineos-ekin batera (Graus, Hueska), PATRIM+ sareko mugaz gaindiko egonaldi artistikoen programan parte hartu du. Prozesu hau Ezkioko Igartubeiti Baserri Museoan irailak 12an irekitzen den eta azaroak 30 arte ikusgai izango den Nathalia Heim artista bisualaren Lurraldeak [Territorias] erakusketarekin amaitzen da. Gipuzkoan antolatzen den mugaz gaindiko lehen egonaldia da.

Egonaldi hau kultur ondarea praktika artistiko garaikideekin uztartzen duen museoaren lan ildoan txertatzen da. "Gaurkotasunetik museoaren gaiak berrikustea eta ezaguera berriak sortzea da asmoa, PATRIM+ Egonaldiari dagokionez, landa inguruneke emakumearen paperaren inguruko hausnarketatik abiatuz", azaldu du Kizkitza Ugarteburuk, Igartubeiti baserri museoeko arduradunak.

Jarduera honek pertsonak beraien lurraldean ikusgai izan daitezen eta arte prozesuetan parte hartzea sustatzeko mugaz gaindiko lankidetzaren dinamika sortzea du helburu.

Igartubeiti baserri museoa, Frantziako eta Espainiako 10 bazkideekin batera, PATRIM+ egitasmoa sustatzen du, museo, ekomuseo eta ondarearen interpretazio zentron mugaz gaindiko sarea, mugaz bi aldeetara Pirinioetako natura- eta kultura-ondarea nabarmentzea helburu duena, garapen jasangarriko ikuspegi bateratuak baliatuz. PEgun, Patrim sarean Ariège-ko, Haute-Garonne-ko, Hautes-Pyrénées-eko, Euskadiko, Aragoiko eta Katalunako bazkideak parte hartzen dute.

*(informazio +)*



### > **Biomaguneko Alberto Elozegi-Artolak, zelulen arteko matrizea ikertuko du Europako Ikerketa Zentruaren Starting Grant beka baten 1,5 milioiekin, Europako Batzordearen Horizon 2020 programan**

Ikertzaile donostiarra Biomaterialen Ikerketa Kooperatiboko Zentroan lan egiten du, hau da, Donostiako Biomagunen, beren hastapeneko garaian, duela hamarkada bat, EGEF europar Funtzaren dirulaguntzak jaso zituen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketaren eskutik.

Beka honi esker, "bizkomatrizea" ikertuko du, hau da, giza zelulen tarteko ehuna, eta honen biskomalgutasunaren arabera daukan erantzunen erregulazio dinamikoa. Ehun honen ahalmen mekanikoak funtsezkoak izan daitezke hainbat prozesutan, hala nola hazkuntzan, zaurien itxieran edo minbizian. Malgutasuna hainbat ikerketen gai izan da, baina ez biskomalgutasuna, eta honen azterketaren etorkizuna oso aberatsa izan daitekeela aurreikusten da.

Elozegi-Artola injeniaritza mekaniko eta biomedikoaren arloan aritu izan da. Orain, zelulek beren inguruaren aldaketetaz nola jabetzen diren, eta nola hari erantzuten dioten, ikertu nahi du, mekanika biofisikoa eta molekularra aztertuz hain zuzen ere. Hasteko, bularraldeko ehuna eta honetan gertatzen den minbiziaren inguruan lan egingo du. Gaurdaino, Harvard-eko unibertsitatearen sustapenari esker ahal egin izan ditu bere ikerketak.

Europako Ikerketa Zentroaren Starting Grant edo hastapeneko bekek 621 milioi euro banatu dizkiete dagoeneko 408 zientzilariei, Europako Batzordearen Horizon 2020 ikerketa eta berrikuntza programaren barne; honekin, ikertzaileek beren taldeak sortu ahal izaten dituzte, doktoradutza edo doktoradutza ondorengo bekadun edo ikasleekin, batik bat.

*(informazio +)*



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > **Health 2.0 Basque komunitatearen Osasun Digitaleko Kongresuan, Donostiako Udako Ikastaroen barne, iktusari buruzko euskal proiektu bat aurkeztu zen, EBaren Horizon 2020 programakoa**

Health 2.0 Basque komunitate bat da, Euskadiko osasunaren etorkizuna teknologiaren eta berrikuntzaren bidez bermatzeko sortu zena, eta irailaren 13an bildu egingo da, Donostiako Miramar Jauregian egingo den Osasun Digitalaren Kongresua: osasuna konektatuz izenekoan. Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroetan sartzen da kongresua, eta zuzendaria Marisa Merino da.

Aurten, Health 2.0 Basque-k eHealth Euskadin erreferentziakoak diren zortzi proiektu aukeratu ditu, eta bertaraten direnei beren proposamenak aurkeztuko dizkiete. Honako hauek dira proiektuak: Physio Set App, Smart Consent, Noa, Transformación Digital en Mutuaia, Starr, Step, XugarHero eta Cloudy.

Haien artea, Starr proiektua da Europako Batzordeak bultzatutako berrikuntza eta teknologia programa markuan sartu ahal izan zuena, hau da, Horizon 2020an.

Europako H2020 Starr proiektuak ekosistema digital bat garatzen du, iktus batetik bizirik ateratzen diren pertsoneri eguneroko bizimodurako jarraibideak beren kontura kudeatzen lagunduko diena, ahal den neurrian berriz ez gertatzeko.

Leire Ortiz Fernández doktoreak eta Javier Escobal-ek hitz egingo dute proiektu horri buruz. Leire Ortiz Fernández mediku ondokoa da, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Medikuntza Fisiko eta Errehabilitazio Zerbitzuan, eta Biocruces Osasun Ikerketako Institutuko ikertzaile nagusia da Starr proiektuan. Javier Escobal berrikuntzako zuzendaria da Grupo Init-en, eta lau urtetik gorako esperientzia dauka osasun arloko software espezializatuak garatzeko proiektuak koordinatzen.

*(informazio +)*





### > **Aldundiak eta unibertsitateek Udako Ikastaroetan klimaren aurreko erresilientziako ikerketak aurkeztu dituzte, hala nola Tecnun-ek gidatutakoa EBaren Horizon 2020an**

«Aldaketa klimatikoaren erronkak: kudeaketa estrategiak lurralde erresilienteetan» izeneko Udako Ikastaroa egin da irailaren 4an eta 5ean Miramar jauregian, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren eta Naturklimaren lankidetzaz. Ikastaroaren helburua da ikasleen heziera hobetzea, lurraldeek (herriek, hiriek, eskualdeek eta abar) garatu ditzaketen estrategia nagusiez, inguru erresilienteagoak lortzeko, XXI. mendeko hirien bizi kalitatearen ardatz nagusia izango baita hori.

Unibertsitateetako beste adituen artean, Josune Hernantes eta Leire Labaka, Tecnun-ekoak, lurraldeen erresilientziaren kudeaketaren inguruan aritu dira, eta ezagutarazi dute honi buruz, oso oroitua den ikertzaile batekin, Jose Maria Sarriegi zenarekin, gidatu zuten proiektua: "Smart Mature Resilience", Horizon 2020 berrikuntza eta ikerketa programa zabalaren barne sustatua, non Donostiaz aparte, Europako beste hainbat hiritako ordezkariak parte hartu baitzuten.

*(informazio +)*

Ikastaroaren barruan aurkeztu da «Lurralde erresilienteen kudeaketarako estrategiak: Gipuzkoaren kasua» izeneko azterketa, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren aginduz egindakoa. EHUko Victoria Elizagarate eta David García irakasleek egin duten azterketak azaltzen duenez, aldaketa klimatikoari aurre egin eta lurralde erresilienteago izan nahi badu, Gipuzkoak prebentzioa neurriak areagotu behar dituela, lurraldearen artifizializazioa geldiarazi, klima aldaketaren eraginari buruzko ingurumen adierazleak landu eta estrategia lokalak bultzatu, Gipuzkoa lurralde erresilienteagoa izan dadin.

Ingurumen diputatu José Ignacio Asensiok gogora ekarri du «Gipuzkoa bere ahultasunaz jabetu behar dela eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko bere gaitasunak indartu behar dituela, toki eta eskualde mailako estrategiak landuta, administrazio guztien lankidetzaz, eta herritarren partaidetzaz: jokoan dago gure gizartearen bideragarritasuna».

*(informazio +)*



### > Donostiako etxebizitza-erakin zaharkitu bat izango da AGREE birgaiketa energetikorako ekimenaren proiektu pilotuen artean, Eusko Jaurlaritzaren lidergoarekin eta EBaren Horizon 2020 programaren sustapenarekin

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, 2022. urtera arte, 40 urte baino gehiagoko bizitegi-erakin pribatuen energia-birgaikuntzan 8,5 milioi euro mobilizatzea espero du, Europar Batzordeak AGREE proiektua onartu izanari esker (Aggregation and improved Governance for untapping Residential Energy Efficiency potential in the Basque Country). Proiektu horren bitartez, erakin horietan bizi diren pertsonen premietara egokitutako finantza-tresna berritzaileak diseinatuko ditu.

Proiektua 2022. urtera arte luzatuko da hiru proiektu pilotutan. Proiektu horiek birgaitze-proiektu integralei ekitea proposatuko den Basauriko, Donostiako eta Gasteizko auzokide-elkartetan egikarituko dira. Bertan, irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna protagonista izango dira, honelako esku-hartze berrietarako zehazki diseinatutako finantziazio-sistema berriak sortuz eta prozesuan bertan bizi diren pertsonen parte-hartzea bermatuz.

Eusko Jaurlaritzarekin batera, proiektu honetan kide dira Tecnalía, Ihobe, eta Donostiako, Gasteizko eta Basauriko etxebizitza sozietate publikoak.

AGREE proiektuari 562.000 euroko dirulaguntza bat eskaini zaio, EBaren Horizon 2020 programak finantzatua, Programa hori Europar Batasuneko ikerketa- eta berrikuntza-programa nagusizat jotzen da, eta proiektu berritzaileak —AGREE adibidez— babestuz Europaren lehiakortasun globala ziurtatzeko funtsak eskaintzen ditu.

*(informazio +)*



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > Europako Lurralde eta Gizarte Aginte-Koadroa

Europar Batasuneko Lurraldeen Batzordearen proposamena, 2014-2018 epealdiko aurrerapenen lurraldekako azterketarako Europaren Gizarte Eskubideen Zutabearen inguruan.

[\(informazio +\)](#)

### > Erresilientziaren Kudeaketarako Europa mailako gida

Klima aldaketaren eraginen aurreko erresilientzia eta aurreikuspenetzko kudeaketarako gida. Donostia eta beste 14 hirietako aditu eta erakundeek 2015-2018 epealdian egindako elkarlan baten ondorio bezala sortua, Horizon 2020 EBaren programaren sustapenarekin eta Donostiako Tecnun unibertsitate gunearen koordinazioarekin.

[\(informazio +\)](#)

### > 2018ko EBaren nekazal eta elikagaietako nazioarteko merkataritzazko urteroko txostena

EBak nekazal eta elikagaien arloko produktuen esportatzaile nagusi bezala baieztatu du bere burua, 2018an bere esportazioak 138.000 milioi eurotara heldu ziren eta. Nekazal ekoizpenak %7<sup>a</sup> dira EBak 2018an atzerritaratutako salmenta osoen balioarengan, laugarren atala direlarik makineria, "beste manufakturak" eta produktu kimikoen atzetik. Nekazaritzak eta elikagaiekin loturiko industria eta zerbitzuek, ia 44 milioi lanpostu sortzen dituzte orotara Europar Batasunean. Elikagaien ekoizpen eta eraldatze kateak enpleguaren %7,5a eta balio erantsiaren %3,7a ematen du EBaren ekonomiarengan.

[\(informazio +\)](#)



## EUROPAKO DEIALDIAK

### > **Industria Digitala 2019.**

Elektronika, Informazio eta Komunikazioko Teknologien (EIKTen) barnerakuntzaren sustapena, ETEentzako (enpresa txiki eta ertainak) zein handietarako, industria arloan. 2014 – 2020 EGEFaren EAEko Programa Eragilearen elkarfinantzatua.

*(informazio +)*

### > **Lanbide – Europako Gizarte Funtza (EGF).**

30 urte baino gehiagoko luzaroko langabeak EAEko lantokietan kontratatzeko dirulaguntza. 2019ko laguntza-deialdia.

*(informazio +)*

### > **Euroeskualdea.**

Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa. 2019ko proiektu-deialdiko bigarren saioaren jaurtiketa. Aurreiragarpena.

*(informazio +)*



### > **Reactivate.**

Europar Batasunaren Lanbide Mugikortasunerako Plana. 35 urtetik gorako hiritarrei eta enpresei zuzendua. Dirulaguntzak eta bekak. EURES mugaz gaindiko mugikortasunerako sarea, EaSI enplegu eta gizarte berrikuntzako programarena.

*(informazio +)*

### > **EACEA.**

Hezkuntza, kultura eta ikusentzuneoetarako Europako Agentzia Exekutiboa. Europako zinema filmen nazioarteko salmenta eragileentzako sustapena. Zinema ekoizleen Europako enpresa bitartekariei zuzendua

*(informazio +)*

*"EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN" webgunea*